

## **Analisia**

### ***Ikasturte politiko berria Durangon***

## ***Lau gako, erronka ugari eta itxaropen bakarra***

Durangoko Udalean erronka asko ditugu ikasturte politiko berri honi begira. Ikastaro benetan zaila izango da, eta, kasu askotan, bertan behera utzi beharko ditugu gure ametsak eta ekimen politikoak, zaintza kolektiboari ekiteko.

Gobernu-talde honetan, Durango erreferentea, inklusiboa eta jasangarria eraiki nahi dugu, durangarrak eta haien auzoak kontuan hartuta, herri kohesionatua eta ingurumena errespetatzen duena lortzeko. Horretarako, udalgintza sendo bat eraiki behar dugu, gure bizilagunen beharrei lehen lerrotik erantzuteko balioko diguna.

Azken urtean, COVID-19ak pertsona eta herri gisa genituen plan asko nahasi dizkigu. Besteak beste, osasunerako, hezkuntzarako, gutxieneko diru sarrerak lortzeko edo sozialki harremanak izateko dugun eskubidea zaildu da. Egoera horretan, udalok – gure bizilagunengandik hurbilen gauden erakundeak garelako – funtsezko pieza bihurtu gara gure bizilagunen arazo askori erantzuna emateko, nahiz eta askotan informazio-falta daukagun eta goi-mailako erakundeen mezu nahasien artean gauden.

Horregatik, lehen unetik, Durangoko Udalean egoera horri aurre egiten saiatu gara, tokian tokiko dinamika indartuz. Adibide gisa, krisi honen guztiaren hasieran, Udaletik koordinatutako Boluntario Sareak erdigunean jarri ditu durangarrak, batez ere egoera ahulenean daudenak lagunduz, hala nola adinekoak edo baliabide gutxiko familiak.

1400 durangarrek eman zuten izena Boluntario Sarean, bertako bizilagunei laguntzeko, elkartasuna gure herrian berebiziko balioa dela erakutsiz. Horrek erakusten du udaletxe eraldatzaile bat garatzeko, guztiz beharrezkoa direla elkarlanean aritzeko prest dauden herritarrek.

Konfinamenduan zehar 287 durangarrei lagundu zitzaizkien Boluntarioen Sarearen bidez, 1.200 adinekori telefonoz deitu zitzaizkien, 4.500 maskara banatu ziren kolektibo ahulenen artean, Eusko Jaurlaritzak estali ez zuen eten digitala pairatzen zuten ikasleei Internetarako konexioa eman zitzaizkien, 200 adinekoen autozaintzarako lau online ikastaro antolatu ziren, komertziariekin batera 'Durango Zaindu' plataforma sortu zen, eta abar luze bat.

Gehien behar izan duenari laguntzera bideratutako ekimenak izan dira beti.

### **Lehentasunak**

Konfinamendua amaitu ondoren, bi lehentasun absolututan murgildu gara: sanitarioa eta ekonomikoa/soziala: Osasun-arloari dagokionez, gure komunitatearen zaintza indartzeko lan egiten dugu; horretarako, etengabe ari gara harremanetan erakundeekin, herrian berragerraldiren bat gertatzen bada prest izateko.

Balizko transmisio handia dela eta, hiru puntuk kezkatzen gaituzte bereziki: ikastetxeak, aisialdirako guneak eta adinekoen egoitzak. Horregatik, oso gertutik jarraitzen dugu egoera, eta bertako arduradunekin harremanetan gaude etengabe. Egoera ekonomiko eta sozialari dagokionez, 2.300.000 euroko Berraktibazio Plana daukagu, alderdi politiko, sindikatu, ikastetxe, merkatar, eragile sozial, kultural eta abarrekin batera adostua. *Modus operandi* hori Durangon maila guztietan ezarri nahi dugun gobernantza demokratikoaren adibide bat da.

Plan horrek asmo handiko neurri batzuk jasotzen ditu, Durango suspertzen eta gure bizilagunen beharrei erantzuten saiatuko direnak. Badakigu, udalen muga ekonomikoak direla eta, ez ditugula behar guztiak estaliko, baina beste erakunde batzuen laguntzekin mimetizatu eta osatu daitekeen Plana dela uste dugu.

Esaterako, irailaren amaierara arte Durangoko negozio txikiek laguntza bat eskatzeko aukera izango dute, sortu dugun 500.000 euroko poltsa baten bidez.

### **Udal finantzazioa**

Ikasturte politiko zaila izango da, agian azken hamarkadetako zailenetariko bat, baita guretzat ere, Bizkaiko Foru Aldundiak bere udalerriei murriztu egingo baitie bere transferentzien zati handi bat.

Horrek udalok ekonomikoki azken hamarkadetako unerik zailenetako batean kokatzen gaitu, zaildu egiten baitugu gaur egun ditugun gastuei aurre egitea. Horregatik, Durangoko Udaleko gobernu taldetik udal mailan eztabaidarik garrantzitsuenetako bat zabaltzearen aldeko apustua egiten dugu: Udal finantziarioa. Izan ere, herritarrengandik gertuen gauden erakundeak gara eta askotan ez daukagu baliabide nahikorik beraien beharrei aurre egiteko.

Era berean, eta gure bizilagunek eskatzen diguten bezala, guk ere informazio zuzena eta gardena eskatzen diegu gure erakunde publikoei; ikasturtera itzultzeari buruzko informazioa, egoitzen egoerari buruzkoa, ostalaritzako neurriekiko zalantzei buruzkoa eta abar. Gure bizilagunei informazioa eman behar badiegu, lehenik eta behin berau jaso egin beharko dugu, eta hori nahi baino gutxiagotan gertatzen ari da.

### **Aukera berriak**

Edonola ere, krisietatik aukera berriak sortu ohi dira. Zentzu horretan, hori gerta dadin, ikuspegia aldatu behar dugula uste dugu. Gaizki egiten joan den guztia aldatu behar dugu, eta irauli, bai norbanaka, bai kolektiboki. Datozen hilabete eta urteetan erronka asko izango ditugu herri gisa eta gizarte gisa. Zer jendarte eredurantz bideratu nahi dugun pentsatu behar dugu: bizikidetzan, elkartasunean eta ongizatean oinarritutako Durango iraunkorra nahi badugu, edo, aitzitik, edozein ezbeharren aurrean Durango hiper-produktiboa baina ahula nahi badugu.

Beste era batera esanda: Durango solidario eta komunitario bat nahi badugu, edo bere zilberrari begiratzen dion Durango bat. Horregatik, azken hilabeteetan gobernu-talde hau osatzen dugunok plan bat lantzen aritu gara, 2030era begira helburu batzuk markatzeko. Helburu horiek lau ardatz nagusitan oinarritzen dira:

- Komunitatea eraikitzea
- Komunitatea zaintzea
- Gobernantza Demokratikoa ezartzea
- Trantsizio ekologikoa

Hilabete gogorak izan dira guztiontzat, eta aurreikuspenek adierazten digute datozen hilabeteetan COVID-19rekin lotutako era askotako ondorioak jasaten jarraituko dugula.

Egoera honen aurrean, herri bezala batasuna mantentzea baino ez zaigu geratzen. Elkarrekin bizi, Durango hobetzeko eta eraikitzeko, guztion ongizatean eta elkartasunean oinarrituta.

Oinekin lurrean jarraitzea besterik ez zaigu geratzen, egunez egun Durango hobe baten alde lanean jarraitu ahal izateko.

**Ima Garrastatxu Urbaneja**  
**Julián Ríos Santiago**